

2014-01-28ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamalaugarren urteko urtarrilaren hogeita zortzian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, batzar ohizkoa egin du Udaltzarak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Ainara Mugika Iruretagoyena, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Tomas Etxeberria Sarasola.

-Azaldu ez den EAJ/PNV udal-taldeko zinegotzia: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2013-12-23).

2013ko abenduaren 23ko ohizko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udaltzari:

2013ko 221. zenbakitik 226. zenbakira bitartekoak.

2014ko 1. zenbakitik 13. zenbakira bitartekoak.

Udaltzara jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

2014ko IRURAKO UDALEKO LANGILEEN EGUTEGIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2014KO UDAL LANGILEEN EGUTEGIAREN PROPOSAMENA aurkeztu da.

Administrazio, Aurrekontu eta Kontu Orokorraren Batzorde Informatiboak, gaur egindako bileran, aldeko proposamena onartu du. Hori ikusi eta aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

AKORDIOA

Udal honetako langileen 2014ko lan-egutegia onartzea, honako lan-arloetakoak:

- Bulego orokorra.
- Obra eta zerbitzuen brigada.
- Hirigintza.
- Garbitzaileak.
- Kultura
- Euskara zerbitzua
- Gizarte zerbitzuak.

Urteko lanaldiak 1.592 ordu izango ditu, dedikazio partziala duten langileentzat izan ezik. Azken hauei dagokien murrizketa partziala egingo zaie. Aipatutako ordu-kopurua baino txikiagoa azaltzen den egutegien kasuan, guztizko kopurura iritsi arteko gainerako orduak bilerekin eta aparteko orduekin osatuko dira.

- Asteko ordutegi normalizatua: 35 ordu, 8:00etatik 15:00etara
- Egutegia aurkeztu ez dutenek bulego orokorreko egutegia hartuko dute erreferentzia gisa.
- Abenduaren 24 eta 31n jai.
- Oporrak: 24 lanegun, astelehenetik ostiralera.
- Norberaren lizentzia egunak.
- Antzinasun egunak.
- Jaiegun ofizialak, estatukoak, autonomikoak eta tokikoak: 14.

LAUGARREN GAIA

AMETSA TRINKETEAREN TABERNA ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUAREN AMAIERA, HALA BADAGOKIO.

“Ametsa Udal Trinketeko Taberna zerbitzua” kudeatzeko kontratua esleitu zitzaion “IMANOL BARRIOS SARASOLA

En relación con el contrato de “Gestión del Servicio del Bar del Trinkete Municipal Ametsa”, por Decreto de Alcaldía nº 106/2012 de 10 de julio, se

Y OTROS C.B.-ri" 2012ko uztailearen 10eko 106/2012 Alkate-dekretuaren bidez, baina esleipena behin behinekoa izan zen eta 12 hilabeteko froga-epea zuen, 2012ko irailaren 14tik kontatzen hasita.

Ondoren, 2013ko irailaren 24an, Udalbatzak erabaki zuen probaldia beste sei hilabetez luzatzea, zerbitzua eman behar duen emakidadunaren gaitasuna ziurtatzeko.

2014ko urtarrilaren 28an akordio batera iritsi dira emakidaduna eta alkatea, eta hauxe da: kontratua ebaztea, zerbitzuarekin jarraitzea 2014ko apirilaren 13ra arte eta beste neurri batzuk

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusi da.

Administrazio, Aurrekontu eta Kontuen Batzorde Informatiboak, gaur egindako bileran, proposamena onartu du.

Hori ikusita, Udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

AKORDIOA

1.- Proposamena onartzea eta kontratua amaitutzat ematea, 2014-01-28 datarekin.

2.- Gogoraraztea, zerbitzua amaitu ondoren, likidazio ekonomikoa eta utzitako udal-ondasunen azterketa egin behar direla.

Halaber, elementu hauen garbiketa osoa egin beharko du emakidadunak: tabernako esparru osoa eta lehen solairu osoa, eskailerak, igogailua, kantxa eta teilatua.

resolvió adjudicar el mismo a la Comunidad de Bienes "IMANOL BARRIOS SARASOLA Y OTROS C.B.", pero con carácter provisional y por un periodo de prueba de 12 meses, a contar desde el 14-09-2012.

Posteriormente, el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el 24-09-2013, acordó prorrogar el periodo de prueba por otros seis meses, para establecer con claridad la capacidad del concesionario para prestar el servicio.

En escrito con fecha 28-01-2014 suscrito por el concesionario y la Alcaldía, se acuerda la resolución del contrato y la continuación en la prestación del servicio hasta el 13-04-2014 y otras medidas.

Visto el Informe del secretario-interventor.

En la Comisión Informativa de Administración, Presupuestos y Cuentas, en sesión celebrada el día de hoy se ha aprobado la propuesta.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO:

1º.-Aceptar la propuesta y dar por resuelto el contrato, con fecha 28-01-2014.

2º.-Recordar que una vez terminado el servicio, procede su liquidación económica y la revisión de los bienes municipales cedidos.

Así mismo está obligado a hacer una limpieza total y general del recinto del bar, así como del resto de la 1ª planta, escaleras y ascensor, cancha y tejadillo.

BOSGARREN GAIA
AMETSA TRINKETEAREN TABERNA ZERBITZUAREN KUDEAKETA
ETA BERE PLEGUAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalak, probaldi epean dagoen Trinketeko taberna zerbitzuaren kudeaketa-kontratua amaitutzat jo nahi du, eta beharrezkoa da taberna zerbitzuaren kudeaketa kontratatzea.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena aztertu da.

Administrazio, Aurrekontu eta Kontuen Batzorde Informatiboak, gaur egindako bileran, proposamena onartu du.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

AKORDIOA:

1.- Ametsa udal Trinketeko taberna zerbitzuaren kudeaketa kontratatzea, eta baldintza ekonomiko eta administratibo partikularren agiria ere onartzea, eta baita dagokion espedientea ere. Esleitzeko (adjudikatzeko) prozedura hau izango da: negoziatua publizitatearekin.

2.- Esleipenaren espedientea hastea.

Teniendo este Ayuntamiento de Irura la intención de resolver el anterior contrato de concesión del bar del Trinkete, en periodo de prueba, es necesario contratar la gestión del servicio del bar.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

La Comisión Informativa de Administración, Presupuestos y Cuentas, en reunión celebrada en el día de hoy ha aprobado la propuesta.

Ante ello, la Corporación, acuerda por unanimidad de los presentes, el siguiente

ACUERDO:

1.-Proceder a la contratación de la gestión del bar del trinquete municipal Ametsa y aprobar el Pliego de Condiciones Económico-Administrativos Particulares y el expediente correspondiente. El procedimiento de adjudicación será el negociado con publicidad.

Segundo.- Iniciar el expediente de adjudicación.

SEIGARREN GAIA

UDALAREN KONTRATAZIO PUBLIKOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZEN AKORDIOA BERTAN BEHERA UZTEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2013ko martxoaren 26ko bileran, Irurako Udalaren Osoko Bilkurak hasiera batean onartu zuen Irurako Udalaren kontratu publikoetan txertatu beharreko hizkuntza-irizpideei buruzko akordioa. Hori guztia Gipuzkoako Foru Aldundiak UDALEKIN programaren barruan egindako proposamenaren baitan kokatzen da.

Jendaurrean jarri ostean eta ikusita ez zela alegaziorik egon, akordioa behin betiko onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2013ko ekainaren 3an.

Orobat, Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritzak espedientearen kopia bidaltzeko eskatu du, haren iritziz Udalek ez dutelako eskumen objektiborik euskararen eta kontratazio publikoen gaineko arau orokorrak ezartzeko.

Ikusita komenigarria dela arlo honen gaineko segurtasun juridikoa mantentzea eta kontuan izanik Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamenari atxikitako beste

Por el Pleno de este Ayuntamiento de Irura, se aprobó inicialmente en sesión celebrada el día 26 de marzo de 2013, el acuerdo referente a aprobación de los criterios lingüísticos a introducir en los contratos públicos de este Ayuntamiento de Irura. Todo ello en el marco de la propuesta elaborada por la Diputación Foral de Gipuzkoa en el marco del programa UDALEKIN.

Sometido a información pública y vista la ausencia de alegaciones fue definitivamente aprobada y publicado el acuerdo de aprobación definitivo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 3 de junio de 2013.

Así mismo se ha recibido requerimiento por parte de la Delegación de Gobierno en la Comunidad Autónoma Vasca de remisión de copia del expediente por estimar que los Ayuntamientos carecen de competencia objetiva para establecer normas generales en materia de euskara y contrataciones públicas.

Vista la conveniencia de mantener la seguridad jurídica en esta materia y la adopción de acuerdos de derogación de la normativa aprobada por otros Ayuntamientos adheridos a

Udalek onartutako araudiak indargabetu direla.

Aministrazio, Aurrekontu eta Kontuen Batzorde Informatiboak, gaur egindako bileran, proposamena onartu du.

Hori Ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

AKORDIOA:

1.- Deuseztatzea eta indargabetzea Irurako Udalak 2013ko martxoaren 26ko Osoko Bilkuran hartutako akordioa, Irurako Udalaren kontratu publikoetan txertatu beharreko hizkuntza-irizpideak onartzen dituen.

2.- Argitaratzea akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

la propuesta de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La Comisión Informativa de Administración, Presupuesto y Cuentas, en reunión celebrada en el día de hoy, ha aprobado la propuesta.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes,aprobar lo siguiente,

ACUERDO:

1º.- Anular y derogar el acuerdo adoptado por el Pleno de este Ayuntamiento de Irura, en sesión celebrada el día 26 de marzo de 2013, de aprobación de los criterios lingüísticos a incluir en las condiciones de los contratos públicos a celebrar por este Ayuntamiento de Irura.

2º.- Proceder a la publicación de este acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

ZAZPIGARREN GAIA

“EMAKUMEEN AUTONOMIAREN ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEEN DEFENTSAN” MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“Emakumeen autonomiaren eta erabakitzeko eskubidearen defentsan

Aurreko abenduaren 20an, Estatu espainolean PP buru den Ministroen Kontseiluak “Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako” Lege Organikoaren aurreproiektua onartu zuen, egungo osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldia eteteko 2/2010 LO aldatuz. **Aldaketa horrek emakumeen autonomiaren kontra egiten du bete-betean edo, bestela esanda, oinarrizko giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboen aurka (*)**. Hamarkadako borrokaren bidez lortutako eskubidea zartada batez ezabatu nahi dute: emakumeek beraien

bizitza sexual eta erreproduktiboaren inguruan erabakitzeko eskubidea izatea, alegia, inolako tutelarik eta jarraipenik gabe. Egin asmo duten kontrarreformak emakumeen autonomia urratu, emakumeen heldutasuna, erabakitzeko gaitasuna eta ardura ukatu eta infantilizatu egiten ditu, abortatu ahal izateko **beste batzuekiko menpekotasuna ezarriz**. Hala, **emakumeon gorputzak Estatuak eta medikuntzak interbenitutako erreprodukzio hutsera murriztu** ditu. Finean, lege egitasmo honek emakumeak gutxiesten ditu; haien borondatea eta haien bizitzarekiko kontrola haien eskuetatik kendu eta Estatuaren tutelapean ezarri.

Gaur egun, haurdunaldia bilatu gabe (nahi izan gabe) haurdun geratu izana izan ohi da haurdunaldia eteteko arrazoi nagusia. Bada, kontrarreformak emakume guzti horiek ama izatera behartu nahi ditu, emakume guzti horien bizitza baldintzatu. Eta, era berean, haurdunaldia bilatua izan arren, malformazioak edo gaixotasunak identifikatutako kasuetan erabakitzeko aukera ukatu nahi dute, edozein modutan haurdunaldiarekin jarraitzera behartuz. Bortxaketarik legokeen kasuetan soilik baimendu nahi dute abortua baina horretarako salaketaren baldintza jarritz, jakin badakitenean bortxaketa asko salatu gabe geratzen direla.

Noren izenean egin nahi dute basakeria hau? Noren hobe beharrez? Zalantzarik ez dago emakumeen bizitzak behintzat ez dituela bereziki kezkatzen. Izan ere, indarkeria matxistaren itzalpean erailtzen eta erasotzen dituzten emakumeen bizitzak ez dira Gobernu espainiarraren lehentasuna. Ez da neurri edo baliabide berezirik ezartzen etengabeko eraso eta erailketa hauekin bukatzeko. Era berean, emakumeen bizi-kalitatea okerrera doa, zerbitzu publikoak deuseztearekin batera emakumeen bizkar geratzen ari baitira gero eta zaintza-lan gehiago. Esaterako, PPren Espainiako gobernua pertsona dependienteentzako laguntzak deusezten ari da, izan helduak, adin txikikoak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen bideratuak. Estatuak bere zereginetatik ezabatzen dituen zaintza-lanak familien gain geratzen ari dira eta, zehazki, familiako emakumeen gain.

Esanguratsua da, baita ere, kontrarreformarekin tematzen diren bitartean, prebentzioa lantzeari uko egiten diotela, haur eta gazteen hezkuntza afektibo-sexuala garatzeko baliabideak gero eta urriagoak baitira.

Edozein modutan, gauza jakina da (eta Munduko Osasunaren Erakundeak ere hala onartzen du) lege murriztaileek ez dutela abortu-kopurua gutxituko. Haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak klandestinitatera edo atzerrira joatea behartuko ditu. Baliabide ekonomiko gutxi dituzten emakumeek klandestinitatera joko dute, emakume izateagatik jasotako bazterketari klase edo egoera sozio-ekonomikoarena batuz. Bestalde,

kontrarreformen ezarri asmo diren abortatzeko baldintza horiek ibilbide eta tramite korapilatsuak ezartzen dituzte, haurdunaldia eteteko unea atzeratuz eta emakumeon bizitzen gaineko arriskuak handituz.

Beraz, PPren gobernuak, jaio ez denaren eskubideak defendatzearen aitzakian, emakumeen eskubideak zapaldu nahi ditu, emakumeek bizitzea merezi duen bizitzak izateak ezer gutxi kezkatuta.

Emakumeen autonomiaren, bizitzaren eta gorputzaren aurkako eraso honen aurrean, Udal honek:

1. PPK aurkeztutako "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" legearen aurreproiektua gaitzesten du, atzerakoa delako eta emakumeen eskubideak urratzen dituelako.
2. Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko konpromisoa berresten du. Haurdunaldia eteteko erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.
3. Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari eskatzen dio emakumeek haien gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu ahal izateko lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala berma dezala.
4. Udal honek, Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonal sanitarioaren kontzientzia objektua arautuz eta aipatutako zentro publikoetan emakumeek Haurdunaldiaren Borondatezko Eteterako duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren talde profesionalak daudela bermatuz.
5. Udal hanek, martxoaren 3ko 2/2010 legearen baitan egiten den edozein aldaketa, emakumeentzat oinarritzkoak eta berezkoak diren eskubideak zabaltzera bideratu dadila eskatzen du, emakumeek ama izan ala ez erabakitzeko ahalmena izan dezaten.
6. Erreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.
7. Herritarrei dei egiten diegu emakumeen autonomiaren alde eta, zehazki, oinarritzko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako gobernuaren kontrarreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten.

8. Honako pleno akordioa Eusko Jaurlaritzari/Nafarroako Gobernuari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Gallardoni helaraziko zaie.”

Udalbatzak aho batez onartu du mozioa.

ZORTZIGARREN GAIA

IRURAKO BILDUREN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TRINKETEKO PARETAN MURAL BAT MARGOTZEKO HONAKO LEMAREKIN, “NAZIOA GARA, INDEPENDENTZIA”.

Proposamen hau aurkeztu da: “Irurako Bilduk proposatu du Trinketeko paretan mural bat margotzea honako lemarekin ,”Nazioa gara, independentzia”.

Udalbatzak aho batez onartu du proposamena.

BEDERATZIGARREN GAIA

TÜV RHEINLAND IBERICA S.A. ENPRESAREN MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Mozio hau aurkeztu da:

“KETXUS SAN EMETERIO GARMENDIA, 15.992.882-Q NANarekin, TÜV Rheinland Iberica S.A. enpresari dagozkien Urnieta eta Irungo IATetako langile batzordeko lehendakaria.

“KETXUS SAN EMETERIO GARMENDIA con DNI 15.992.882-Q, Presidente del Comité de Empresa de las itv's de Urnieta e Irún pertenecientes a la empresa TÜV Rheinlarid Ibérica, S.A.

AZALTZEN DU:

TÜV Rheinland Ibérica S.A. derrigorrezko ibilgailuen azterketako zerbitzu publikoen ustiatze emakidaduna da EAEko 8 IATetako 2retan (Urnieta eta Irunen), Eusko Jaurlaritzako Industria sailak 30 urtez 1994/01/01tik 2023/12/31ra aktibitate honen ustiatzaile errejimenaren esleipena medio. Ibilgailuen azterketa teknikoen zerbitzu publikoan ezarririko kontzesio kontratuko errejimen juridikoan, bertan EAEko Industria zuzendariak zehaztutako lege eta arauak biltzen direlarik,

EXPONE:

La empresa TÜV Rheinlarid Ibérica, S.A. es la actual concesionaria de la explotación del servicio público obligatorio de inspección técnica de vehículos en 2 de las 8 itv's que existen en la CAPV (Urnieta e Irún) por adjudicación de dicha actividad en régimen de concesión por el departamento de industria del Gobierno Vasco por un periodo de 30 años a partir de fecha 01/01-11994 y hasta 31/12/2023. El régimen jurídico establecido en la adjudicación del servicio público de inspección técnica

Urnieta eta Irungo IATetako kontzesiodun TUV Rheinland Ibéricari ezartzen zaizkio zerbitzuaren inguruko xehetasun guztiak, EAeko IATetako langileen baldintza nahiz eskuduntzak zehazten direlarik.

Gipuzkoako IATetako langileen baldintzak zehaztu eta erregulatzen dituen marko legala, Gipuzkoako PRECO "greba amaierako" akordioa da, sei hilabeteetako greba ondoren, TUV Rheinland Ibérica S.A. enpresa kontzesionario eta langile batzordearen artekoa. Bertan langileen lan baldintzen gain, aktibitatearen kudeaketa zuzena eta IAT zerbitzu publiko egokia eskaintzea bermatzen da.

Akordio honen iraupena 2011/12/31an amaitu zen eta enpresaren jarrera orain arte ezkorra izan da akordio hau berri eta eguneratzeari dagokionez, horren ondorio dira langileen geldialdi eta mobilizazioak, egoera desblokeatze aldera protesta moduan.

2012an IATko zerbitzuak 126 egunez izan du honen eragina, eta 2013an, 65 geldialdi egun eta ekainaren 15az geroztik orain bitarte 160 egun baina gehiago dira greba egunak, enpresak

de vehículos desde la dirección de industria de la CAPV, impone a la empresa concesionaria las ITV de Irún Urnieta, TÜV Rheinland Ibérica S.A. todos los aspectos relativos a la prestación del servicio además de las condiciones y atribuciones relativos al personal técnico de las Estaciones ITV-IAT de la CAPV.

Las condiciones laborales de todos los trabajadores de las dos itv's Guipuzcoanas de Irún y Urnieta están recogidas y reguladas en el marco legal actualmente establecido que es un acuerdo "fin de huelga" alcanzado en junio del año 2010 en la sede del PRECO de Gipuzkoa entre la dirección y el comité de empresa, después de más de seis meses de huelga, que además de las condiciones laborales garantiza también el correcto desarrollo de la actividad y la prestación de un servicio público de ITV de calidad.

El acuerdo terminó su vigencia el 31-12-2011 y la negativa de la empresa todo este tiempo a renovar actualizando el acuerdo que existe actualmente y su falta de compromiso a cumplirlo durante su vigencia ha tenido como consecuencia que los trabajadores vienen realizando movilizaciones y paros en protesta por el bloqueo al que tiene sometida la empresa a la renovación del acuerdo.

En el Año 2012 han sido 126 los días los que las itv's han visto el servicio afectado por el conflicto y durante el año 2013, se llevan 65 días de paros y más de 170 días de huelga con el

langileei akordio hau berritzeko aukera ematen ez dielarik.

Gatazkaren ondorioak herritarrentzat beste lurralde batetara joan beharra da IATA egitera, gehiengoa Nafarroara, bertan enpresa kontzesioduna TÜV Rheinland Ibérica S.A. delarik Doneztebe, Arbizu eta Berriozar kasu. Horrela gipuzkoar IATko erabiltzaileak bereak diren nafar IATetara joatera behartzen ditu eta bertan ordu luzeetako ilara itxaron araztera. Beste zenbait gidarik aldiz ez dute IATrik egiten eta Irungo IATak eskaintzen dituen ordu apurren zain gelditzen dira (40 egun bataz beste).

Ondorioz, 65 geldialdi egun eta 159 egun baina gehiagoko greba ondoren eta zerbitzua geldirik edo eskasiaz eskaintzen delarik bi gipuzkoar IAT hauetan 2013an, enpresaren kudeaketa pribatuaren jarrerak bultzaturik, gatazkaren amaiera ekarriko duen akordiora iritsi nahi ez duelarik. Ondorio moduan (kontzesio kontratua ez betetzearen arduraz gain):

servicio prácticamente interrumpido, sin que a día de hoy la empresa haya ofrecido a los trabajadores la posibilidad de renovar el acuerdo de forma satisfactoria en los términos que existen.

Las consecuencias del conflicto para los ciudadanos están siendo que miles de conductores tienen que trasladarse a realizar la ITV a otras provincias la mayoría a Navarra donde la empresa TÜV RHEINLAND IBÉRICA S.A. es también la concesionaria en las ITV's de Doneztebe, Arbizu, Berriozar, obligando a los usuarios de las ITV's Gipuzkoanas a acudir a realizar la ITV de sus vehículos a otras ITV's, donde los conductores tienen que soportar largas horas de espera. Otros conductores en cambio, no pasan la ITV o esperan a que la ITV de Irún les dé una de las pocas citas que dan (40 días de espera media en la cita).

En consecuencia, después de los 65 días de paros y más de 170 días de huelga con el servicio interrumpido o prestado deficientemente en las dos ITV's Gipuzkoanas en lo que llevamos del año 2013, la dimensión pública de este problema provocado por la actitud en la gestión privada de la actual empresa adjudicataria de la explotación del servicio público obligatorio de inspección técnica de vehículos TÜV Rheinland Ibérica S.A. en 2 de las 8 ITV's que existen en la CAPV (Urnieta e Irún) que continua negándose a llegar a un acuerdo que termine con todo el conflicto, está trayendo consecuencias y graves perjuicios cada día que pasa en los

derechos de:

Milaka gipuzkoarren eskubidearen kalte larria (2013an 80.000 baina gehiago izango dira gidari kaltetuak) EAEko administrazioak antolaturiko IAT zentroetara joaterik ez dutelarik.

Miles de guipuzcoanos (van a ser más de 80.000 conductores los afectados, durante el año 2013) que no pueden acudir a de centros ITV habilitados por la administración de la CAPV en Gipuzkoa para cumplir con la obligación de inspeccionar sus vehículos.

EAEko administrazioagan kaltea azterketen fakturazioan dagokion kanona jasotzen ez duelarik.

La propia administración de la CAPV que sigue permitiendo dejar de recaudar por el canon que debe satisfacer la concesionaria por cada inspección que se factura en la CAPV.

Gipuzkoako foru aldundian kaltea fakturako jasotzen duen BEZaren etorria izango ez duelarik.

La diputación foral de Gipuzkoa que va a ver desaparecidos los ingresos que percibe por el IVA de cada factura realizada por las ITV en Gipuzkoa.

Errepideetako segurtasunean ere eragina du hainbat ibilgailu derrigorrezko IAT azterketa ikuskatu gabe dabiltzalako hauen gidariak beste lurralde batera ez joatea erabaki dutelako, administrazioak derrigorrezko tramite hau Gipuzkoan normaltasunez egiteko aukera bermatu behar duelarik.

Además, aparte de las posibles responsabilidades derivadas de los incumplimientos del contrato de concesión, se está poniendo en riesgo la seguridad vial, por el porcentaje de vehículos que circulan sin la inspección en vigor porque sus usuarios han decidido no ir a otra provincia a realizar el trámite obligatorio que la administración tiene la obligación de ofrecer el servicio con normalidad en Gipuzkoa

Hau guztiagatik, IATen kudeaketa EAEko administrazioa Seguritate Industrialeko Sailekoa izaki non kontzesio errejimena enpresa pribatuena den, Eusko Jaurlaritzako industria saileko zuzendariari dagokio IATen zerbitzuei buruzko

Por todo esto anterior, siendo la gestión de la Inspección Técnica de Vehículos (ITV) una actuación de la administración de la CAPV en el campo de la Seguridad Industrial (seguridad vial) transferida a Empresas privadas en régimen de Concesión, la dirección del

hitzarmena betetzeko ardura zuzena.

Denbora hau guztia igaro ondoren, ez da arrazoizkoa enpresari Gipuzkoako IAT zerbitzuak ez betetzea onartzea, aitzakiatzat akordio batekin amaiera eman nahi ez dion gatazka hau erabiliz. Bestalde langileok ez dakigu Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak txostenik baduen, informaziozkoa bada ere, edo administrazioa beharturik dagoen auditoria eta azterketak bertan behera utziak dauden.

Urnieta eta Irungo langileak Industriari adierazi diote lehenbailehen adostasun batetara iristeko nahia horrela IAT derrigorrezko zerbitzu publikoa %100ean eskaini ahal dadin baita oraingo marko legalaren berrikuntza egokia burutu dadila. Gatazkaren amaiera berehalakoa izango da enpresak langileek onartuak dituzten eskubideak errespetatzeko borondatea badu.

departamento de industria del Gobierno Vasco es quien tiene la responsabilidad directa de sobre las concesionarias de las itv's a fin de garantizar que sus actuaciones cumplen con la finalidad del Servicio de acuerdo con lo reglamentado al efecto.

Pasado todo este tiempo, es evidentemente ilógico que se continúe permitiendo a la empresa concesionaria de las itv's Gipuzkoanas, seguir sin cumplir con sus obligaciones en la prestación del servicio público de ITV con normalidad, por su justificación de la existencia de un conflicto que ella misma se está negando a solucionar llegando a un acuerdo. En tal sentido, los trabajadores desconocen que exista abierto por parte del departamento correspondiente del Gobierno Vasco algún un expediente tan siquiera informativo al efecto, o si por el contrario, se han suspendido los controles y auditorías que la administración está en obligación de realizar a la concesionaria

Por su parte, los trabajadores de las itv's de Urnieta e Irún, han transmitido a la dirección de industria su voluntad y total disposición de negociar inmediatamente para llegar a un acuerdo que termine con la totalidad del conflicto restableciendo al 100% el servicio público obligatorio de ITV y la renovación satisfactoria del marco legal actual en sus mismos términos es una cuestión sencilla si la empresa concesionaria tiene voluntad de terminar el conflicto cumpliendo

con su compromiso de respetar y actualizar los acuerdos que existen, con las condiciones laborales de los trabajadores que están reconocidas actualmente.

Hau dela eta, Urnieta eta Irungo langileek legezko ordezkariaren bitartez eskatzen dute:

Erakundeen babesa, behar beste mugimendu burutuz Eusko Jaurlaritzara presatzeko:

1.- Beharrezko diren egin ahalak burutu ditzan lehenbailehen TÜV Rheinland Ibérica S.A. enpresa kontzesiodunarekiko galazka konpontzeko non milaka gipuzkoarri eragiten dien.

2.- EAEko gidariei ibilgailuen azterketarako IAT zentroa libreki hautatzeko eskubidea bermatzea honetarako behar diren neurriak hartuz, non zerbitzua epe eta modu egokian eskaintzen delarik eta funtzio hauetarako behar beste langilerekin, horrela kalitatezko zerbitzua eskainiko delarik."

Por todos estos motivos, los trabajadores de las itv's de Urnieta e Irún, a través de su representación legal solicitan apoyo de la institución para que, realizando cuantas acciones que entienda oportunas se inste al Gobierno Vasco a:

1º Realizar los esfuerzos necesarios al objeto de resolver cuanto antes el conflicto laboral en la empresa concesionaria TUV RHEINLAND IBÉRICA S.A. que está afectando a decenas de miles de ciudadanos.

2º Garantizar a todos los conductores el derecho a elegir libremente la estación ITV donde desee realizar la inspección técnica de vehículos entre las habilitadas por la CAPV tomando las medidas necesarias que obliguen a la concesionaria a satisfacer las demandas de inspección existentes de manera que el servicio se preste en todo momento dentro del plazo y forma y con el personal necesario para realizar todas las funciones, de modo que el servicio pueda prestarse en condiciones idóneas de calidad."

Udalbatzak, aho batez, onartu du.

Galdera eskarien atalaren aurretik ondorengo gaia tratatu da, presazko egoera adierazi baitute aho batez batzarkideek, eta hauek Udalbatzarraren partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa osatzen baitute:

HAMARGARREN GAIA

HAURRENTZAKO PEDIATRIA ZERBITZU DUIN BAT ESKATZEKO ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Adierazpena hau aurkeztu da:

Alkiza, Anoeta, Hernialde eta Irurako herrietan sinadura bilketa bat egin da. Bertan, herritarrek gure haurrentzako pediatria zerbitzu duin bat eskatzen dute. Herritarren ekimenez sortu da mugimendu hau, eta udalari eskaera hau egin diote.

Kontuan hartu behar da 4 herrietarako pediatria zerbitzua Anoetan ematen dela, 4 orduz soilik. Hau eskas geratzen da, nahiz eta gero Villabonara joateko aukera daukaten, horrek suposatzen duen guztiarekin (ilara luzeak, txanda hartzeko arazoak, beste herri batera mugitu beharra). Gainera, hau gutxi balitz, oporrak eta bajak ez dira betetzen, honela zerbitzuaren kalitatea eskastuz, eta gure seme-alaben osasuna arriskuan jarritz.

Horregatik, eskatzera gatozena da: zerbitzua hobetzeko, lanaldi osoko pediatria bat Anoetan jartzea, edo lanaldi erdi bat Iruran eta beste erdi bat Anoetan egingo duena jartzea.

Gure seme-alaben eskubidea da, zerbitzu duin bat izan dezaten, eta gaur egungo egoera ez da batere atsegina, ez haurrentzat, ez gurasoentzat.”

Udalbatzak, aho batez, adierazpen hori onartzea erabaki du.

HAMAIKAGARREN GAIA.

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 21:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA